


## «ARBASOEN DEIA», DEBABARRENEKO SUSTRAIETARA BIDAIA



Iturria: Debanatura

Gure arbasoen aztarnari jarraitzea, horixe proposatzen digu «Arbasoen Deia» izeneko egitasmo berriak.

Debegesa Garapen Agentziak Debanatura Elkartearekin batera abiatu du bisita programa berria eta helburua da eskualdeko herri-tarrei zein bisitariei Debabarreneko historia eta ondarea ezagutzera ematea, gure iraga-

nean eta tradizioetan sakonduz. Hiru ibilbide proposatzen dizkigu ekimenak, adituen azalpenek lagunduta.

### Dolmenen Ibilbidea, euskal artzainen aztarna jarraituz

Euskal Herriko begiralekurik onenetariko den Karakate-Irurutzeta mendilerroan ibiliko gara, trikuharri eta tumuluen kontzentrazio handia aurkitzen baita bertan. Gainera, geldialditxo bat egin eta eskualdeko sagardoa eta gazta dastatzeko aukera bikaina izango dugu.

### Paleolitoko Ibilbidea, Ekain eta Praileaitzen

Bi bide proposatzen dira. Lehenak Ekaingo kobara eramango gaitu. Paleolitoko margoen pista jarraituz, Euskal Herrian inoiz aurkitu diren labar pinturarik zaharrenak ezkatzen dituen Astigarraga kobazulora gerturako gara lehenbizi, Debara, eta ondoren Ekaingo ko-

bazuloa ikusi eta bere erreplika bisitatuko dugu, Zestoan.

Bigarren aukera, Debako inguruetan historiaurreko hainbat kobazulo garrantzitsu eza-gutzeko aukera eskaintzen duen txango zirkularra egitea da, besteak beste, Ermittia, Praileaitz eta Arbil kobazuloak. Ibilbidea borobiltzeko, Saka Perlakua jatetxean txorizo mutur bat janez indarrak berreskuratu ahal izango ditugu!

### Burdinolen Ibilbidea, Debabarreneko industria-jatorria

Mendaroko tren geltokitik abiatuta, Kilimoi bailarara abiatuko gara burdinola, karobi eta bide zaharren aztarnak jarraituz. Amaitzeko, Makina Erremintaren Museora bisita egingo dugu.

Bisituen egunak eta gainerako informazioa [www.debabarrenaturismo.com](http://www.debabarrenaturismo.com) webgunean.

## MÁS DE 200 AFICIONADOS DISFRUTARON EN LA IV MARCHA BTT DEBABARRENA



220 amantes de la bicicleta se dieron cita el pasado 1 de julio en la cuarta edición de la Marcha BTT Debabarrena. Se trata de

una marcha popular organizada conjuntamente por la Agencia Comarcal Debegesa, el Patronato de Deportes del Ayuntamiento de Elgoibar y los clubes BTT de Debabarrena.

Los participantes tuvieron la oportunidad de disfrutar en bicicleta del privilegiado entorno de Karakate. Los BTTros pudieron elegir entre dos itinerarios, uno de 25 kilómetros, y otro de 45 kilómetros.

*Dos periodistas de la revista Planeta MTB participaron en la prueba y próximamente publicarán un extenso reportaje sobre el mismo*

Una vez finalizada la prueba, se llevó a cabo el sorteo de premios, ofrecidos por diversos alojamientos, restaurantes y tiendas de deporte de Debabarrena. Posteriormente, los asistentes al evento pudieron degustar una deliciosa comida y disfrutar de un concierto en directo a cargo del grupo Melissa & The Jacks.

Uno de los objetivos prioritarios de esta iniciativa es promocionar el Centro BTT Debabarrena cuyo punto de acogida se encuentra en el complejo deportivo de Mintxeta, en Elgoibar, y que cuenta con 15 rutas, de diferentes niveles de dificultad, repartidos por toda la comarca.

# ESCOLARES DE DEBABARRENA, POR UNA MOVILIDAD MÁS SOSTENIBLE

7.000 alumnas y alumnos de 28 centros de Debabarrena han trabajado a lo largo del curso 2011-2012 para mejorar la movilidad de sus municipios dentro del programa Agenda 21 Escolar, coordinado desde el Dpto. de Desarrollo Sostenible de Debegesa.

Entre otras actividades, los escolares se han puesto en la piel de las personas que se mueven en silla de ruedas, han analizado los desplazamientos que realizan a diario a sus centros educativos y se han reunido con técnicos municipales y la policía municipal con objeto de conocer la labor que vienen realizando en sus localidades con respecto a la movilidad.

Con todo, los escolares han elaborado un diagnóstico y han presentado una serie de compromisos y propuestas de mejora ante los representantes municipales en los plenos celebrados durante el mes de junio.

Fruto de este trabajo, los Ayuntamientos de la comarca han adquirido el compromiso de llevar a cabo algunas de las propuestas presentadas por los estudiantes, entre las que destacan:

- Colocar aparcabicis en los centros
- Garantizar la seguridad en los caminos escolares mediante la elevación de los pasos de peatones
- Señalizar el camino escolar, limitando la velocidad de los vehículos
- Realizar una prueba piloto para acudir a clase en bicicleta

Durante el próximo curso, y con objeto de darle continuidad al trabajo realizado este año, se seguirá tratando el tema de la movilidad.



Soraluzeko ikasleak sariarekin.



Mutrikuko ikasleak udalbatzarrean.



Bilera teknikoa Eibarren.



Zuhaitz Eguna Elgoibarren.



Bilera teknikoa Ermuan (Ermuko Udala).

## Mogel Isasi ikastetxeak Eskola Jasangarriaren Ziurtagiria jaso du

Eskolako Agenda 21 egitasmoa modu bikainean garatzeagatik jaso du Eibarko Mogel Isasi ikastetxeak Eskola Jasangarriaren Ziurtagiria, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Mogel Isasi ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoak 2003. urtetik ari dira Eskolako Agenda 21 egitasmoa lantzen, ikasleen artean jasangarritasunaren aldeko heziketa bultzatzen, Debegesa eta Ingurugelaren laguntzarekin. Errekonozimendua hiru urterako da, eta hiru urte hauek gaudituz ondoren, errekonozimendua berritu egin beharko du ikastetxeak.

## «Amestu zure herria» lehiaketak baditu irabazleak

Eibarko La Salle Isasi Ikastetxeko 6.A taldea eta Soraluzeko BHI Ikastetxeko 2.B taldea izan dira «AMESTU ZURE HERRIA. Zein herri mota eraiki nahi dugu?» lehiaketaren irabazleak, herritarren botoek hala erabakita. Eskolako Agenda 21 programaren baitan eta Gure Balioak ekimenarekin bat eginez burutu da lehen aldiz marrazki eta bideo lehiaketa eta eskualdeko ikastetxeen parte hartze handia izan da. Sari gisa Euskal Kostaldeko Geoparkeaz gozatzeko aukera izan dute bi taldeek. Zorionak irabazleei eta eskerririk asko parte-hartzaile guztiei!

# EGO ETA DEBA IBAIERTZETAN BERTAKO LANDARETZA BERRESKURATZEKO EKIMENA

Aurten ere abian da Ego eta Debako ibaiertzetan landare inbaditzaileak errotik kentzeko eta bertako landaretza berreskuratzeko egitasmoa. Ekimena Debabarreneko Udalek, Debegesak, URAk eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek bultzatu dute.

Iaz hasitako lanari jarraipena emanez, dagoe-neko hasi dira Soraluze, Mendaro eta Ego Ibaian aurkitzen diren espezie inbaditzaileen mozketaren errepasoa burutzen, baita Elgoibarko lehen mozketak egiten ere. Lan hauen baitan, aurten Debako marismetara iristeko asmoa dago eta iraillean, mozketak amaitutakoan, gune hauek guztiak tratatuko dira.

Landa guneetan bizi diren herritarrei espezie inbaditzaileen gaineko informazioa helaraziko diete eskualdeko Udalek, elkarren arteko lankidetzaz sustatu asmoz. Halaber, herritar ororen laguntza eskatu da espezie inbaditzaileen gune berriak identifikatzeko.

Informazio gehiago nahi duenak [www.debegesa.com](http://www.debegesa.com) atarian kontsulta egin dezake, [debaibaia@debegesa.com](mailto:debaibaia@debegesa.com) helbidera idatzi edota 943 820110 telefonora deitu.



Reynutria.



Cortaderia.



Buddleja.

## Zer da espezie inbaditzailea?

Ekosistemaren garapenerako kaltegarria den kanpotik ekarritako espezieia. Eragiten dituen kalteetako batzuk: tokiko landaretzari kalte, bioniztasuna murriztu, galera ekonomikoak... Baina, kanpotik datozen espezie guztiak ez dira inbaditzaileak.

## Zeintzuk dira ekidin nahi diren espezie inbaditzaileak?

Reynutria, Buddleja eta Cortaderia

## REVISIÓN DEL PLAN DE ACCIÓN DE AGENDA 21 DEBABARRENA

Durante el año 2012 se está procediendo a la revisión del Plan de Acción de Agenda 21 de Debabarrena. Tras un análisis preliminar de la actual situación comarcal, en la que se ha contado con una sesión de participación de la ciudadanía, se ha realizado un prediagnóstico.

Con objeto de elaborar el Plan de Acción definitivo, se abrirá un proceso participativo en el que se contará con el Consejo Asesor de Debegesa, formado por empresas, centros educativos y organizaciones varias. Asimismo, durante el mes de septiembre se podrán consultar los documentos así como realizar aportaciones a través de la web de Debegesa, [www.debegesa.com](http://www.debegesa.com).



- Elevado uso de **combustibles fósiles**.
- Baja **producción de energías renovables** en los municipios de Debabarrena (en 2009, una generación de tan solo del 1,8% de la energía eléctrica consumida en la comarca para el mismo año).
- Continación de la **playa de Saturraran** debido a la inexistencia de saneamiento en la regata Mijoa.
- Obras pendientes significativas para garantizar el **saneamiento de las aguas residuales** generadas en los municipios de Mallabia, Ermua y Mendaro.

La recuperación integral del Río requiere como condición esencial finalizar el saneamiento de su cuenca.

- Niveles bajos de **valorización de residuos peligrosos** (18% frente al objetivo del IIPMA del 65%). Se considera necesario reforzar este aspecto.

Extracto del prediagnostico comarcal.

## IBAI LAGUN 2012, DEBABARRENEKO IBAIAK GARBITZEKO DEIALDIA



Aurten ere, Ibai Lagun egitasmoaren baitan, Debabarreneko ibaiak auzolanean garbitzeko lana burutuko dira eskualdean. Data zehatzik ez da oraindik finkatu baina ekimena iraillean egingo da. Debegesako Garapen Jasangarrirako departamentuak dei egiten die herritarrei, haur zein helduei, boluntario gisa parte har dezaten.

Informazio gehiago nahi duenak [debaibaia@debegesa.com](mailto:debaibaia@debegesa.com) helbidera idatz dezake edota 943 82 01 10 telefonora deitu. Facebook eta Twitter sare sozialetan ere aurkituko gaituzue:

// Facebook.com/Debegesa  
// @debegesa

## EL 23 DE JULIO SE PONDRÁ EN MARCHA EL HORARIO DE VERANO DEL SERVICIO DE AUTOBUSES DE EUSKOTREN EN DEBABARRENA



El servicio de autobuses de EuskoTren en Debabarrena tendrá un nuevo horario a partir del 23 de julio y se extenderá hasta el 3 de septiembre. En la web de Debegesa está disponible la información con los nuevos horarios. Asimismo, se cambiarán los paneles informativos en las marquesinas de la comarca.

# NOVEDADES EN LAS VISITAS DEL GEOPARQUE DE LA COSTA VASCA

El Geoparque ha arrancado su nueva temporada con un sinfín de novedades, entre las que destacan las nuevas propuestas y actividades para los más pequeños, salidas de espeleología, rutas a caballo por la Ruta del Karst, avistamientos de cetáceos...

Las propuestas que ofrece el Geoparque, de distinta temática y duración, se presentan en tres grupos: las actividades de la Ruta del Flysch —en la costa—, la Ruta del Karst —en el interior—, y finalmente el conjunto de Cultura y Experiencias.

Entre las novedades de la Ruta del Flysch, destaca la experiencia «El Flysch con niños», donde los más pequeños disfrutarán y aprenderán del maravilloso mundo del flysch. La experiencia comienza con una breve visita al Centro de Interpretación NAUTILUS. A continuación, los pequeños se divertirán en un pequeño taller geológico donde crearán su propio fósil que se llevarán a casa. La visita finaliza con un paseo en barco a Saturrarán.

La Ruta del Karst nos invita a descubrir un mosaico de paisajes y lugares formados en los macizos calizos del interior, relieves originados por el desgaste de la piedra caliza formada en un pasado remoto bajo un mar tropical. Entre las novedades, sobresalen las rutas a caballo para conocer el Karst y las salidas guiadas de espeleología para descubrir los secretos mejor guardados en la cueva de Aix de Deba.



Por último, destacamos la exitosa experiencia «Pequeños Pastores» que se desarrolla en Lastur. Este año como novedad también se puede disfrutar de los avistamientos de cetáceos, las salidas de pesca en Mutriku, la visita cultural que une Zumaia con el mar y la visita a la iglesia parroquial Santa María de Deba que incluye un concierto.

Más información sobre todas estas actividades en [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com).

## LANKIDETZA PUBLIKO ETA PRIBATUA SUSTATUZ TURISMOAN

Eusko Jaurlaritzaren irizpideak jarraituz, Debegeesak eskualdeko turismo sektorean lankidetzak publiko eta pribatua indartu nahi du. Helburua eskualdeko turismo sektorea indartzea edo sustatzea da eta horretarako eragile publiko eta pribatuen lankidetzak eta partaidetza ezinbestekoa da. Iaz Turismo Mahaia sortu zen eragile publiko eta jatetxe, alojamendu eta turismo enpresen ordezkariekin. Aurten mahai azpi-sektorialak sortu ditugu partaidetza zuzena sustatzeko. Guztira, 29 alojamenduk eta 26 jatetxek osatuko dituzte mahai azpisektorial hauek eta aurrera begira, aktibitate, irteera, etab. eskaintzen dituzten beste turismo enpresa batzuekin 3. mahaia osatzea da helburua.

## TURISMO WEBGUNA BERRITU DUGU!



Debegeesako Turismo Sailak webgunea [www.debarrenaturismo.com](http://www.debarrenaturismo.com) guztiz berritu du. Atari berriak diseinu garbia eta erakargarria du. Edukiari dagokionez, informazioa sei ataletan banatuta dago eta herritarrentzako informazio interesgarria eta erabilgarria jasotzen du. Bisitarien beharretara egokitzeko euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez eskaintzen da informazioa.

«Eskualdea» atalean, eskualdeko 8 herrien berri ematen da, informazioa herriz-herriz sailkatuta.

«Zer ikusi?» atalean, berriz, eskualdeko museo, ibilbide, eta gastronomiaz gozatzeko aukera ezberdinak jasotzen dira. Halaber, ugari dira gure eskualdeko turismo aktiboari dagokionean eskaintzen dituen proposamenak eta horiek guztiak jasotzen ditu «Turismo Aktiboa» atalak. Besteak beste, surfa, BTT, espeleologia, urpekaritza, paintballa, kayak, zaldi irteerak... Gainera, alojamenduen eta jatetxeen gida osoa kontsultatu ahal izango da webgunean.

Horrez gainera, herritarrengana hurbildu nahirik eta parte-hartzea sustatze aldera, Facebook sare sozialak ere badu tokia webgune berrian: [Facebook.com/DebarbarrenaTurismo](https://www.facebook.com/DebarbarrenaTurismo).

### Eskualdeko eskaintza turistikoa, irudietan

Debarbarreneko eskualdeak asko du bisitariari eskaintzeko. Mendia eta itsasoa uztarturik, benetako Euskal Herria deskubritzeko hamaika leku, ibilbide eta jarduera interesgarri aurki daitezke bertan. Gauzak honela, eskualdeko eskaintza turistikoa modu berritzaile eta erakargarrian aurkeztu asmoz, datozen aste eta hilabeteetan hiru bideo turistikoko zabalduko dira, bertako zein kanpoko bisitariari zuzenduta.